

ERABAKI HANDIA

Lurrean aurkitutako paper zimur batzuek erabaki zuten, 1929an, Plazido Muxikaren geroa. Hogeita hiru urteko jesuita gaztea zen, artean meza eman gabea, eta Kolonbian zegoen, ikastetxe batean hiru urteko maisualdia betetzen.

Hiru urte haietan ibilaldi ugari egin omen zuen hango mendi handietan gora eta behera. Behin, hiru mila metrotik goragoko mendietan barrena zebilela, nekeak ahuldurik, bide bazterreko enbor baten gainean eseri omen zen, zangoak pixka bat lasaitzeko. Horrela zegoela, patxadan, arnasa hartzen, paper zimur zaharkitu batzuk ikusi omen zituen ondoko beste enbortxo baten azpian, ertza ageri. Zer ote ziren? Begira egon zen pixka batean, hartu ez hartu. Azkenean, ordea, jakinminak nekearen nagia garaitu eta luzatu zuen eskua. Hartu zuen paper-piloa, zabaldu zuen eta... hura bihotzaren zimikoa! Hura zirrara! Euskaraz idatzita zeuden! *Argia* aldizkariaren orriak ziren, goitik behera euskaraz idatziak!

Urruti haietan eta horrelako leku bakartian bere herriko hizkuntza

aurkitzeak zirrara handia eragin omen zion Plazido gazteari. Liluratuta geratu omen zen. Txundituta. Orriak behin eta berriro irakurri eta asmo sendo bat jaio omen zen bat-batean haren barruan. "Dei" bat bezalako izan omen zen: zerbait egin behar zuen bere hizkuntza maitearen alde!

Orduantxe hartu omen zuen bere bititza guztian berebiziko eragina izango zuen erabaki handia: herrira itzultzean, euskarak hain beharrezko zuen hiztegia egingo zuen!



Loturik geratu ziren betiko Plazido Muxika...




MUXIKAREN HIZTEGI MARDULA

Erabakia sendoa zen, baina Aita Muxikak ez zuen hura berehala betetzeko modurik izan. Aurrena, behintzat, ikasketak amaitu behar izan zituen. Gero, berriz, meza emanda eta ikasketak bururatuta, bestelako lan batzuetan ipini zuten agintariek: jesuita gazteen irakasle, latin eta greko hiztegien egile, liburuzain, artxibari... Noizbait, ordea, hasi zen bere hiztegi handirako fitxak betetzen, atsedenari tarteak kenduz: 1940-50 hamarraldiaren erdialdean izan zen hori. Lanaldiak etenaldiekin txandakatuz igaro zituen urte asko. Geroago, hartara jarri zuten agintariek, beste lanik gabe, eta 1965ean argitaratu zuen azkenean bere *Diccionario castellano-vasco* mardul

eta bikaina, guztira 1.897 orrialde trinko zituena.

Harrezkeroztik loturik geratu ziren betiko Plazido Muxika eta haren hiztegia. Beste batzuegatik esan ohi dena esan daiteke hari buruz ere: gauza bat eta bera bilakatu zirela pertsona eta haren lana. Urte haietan, 60-70 hamarraldian, Plazido Muxika aipatzea haren hiztegi mardula gogoratzea zen eta erdaratiko hiztegiak hitz egitea Plazido Muxikaren hiztegiak hitz egitea.

Etekin polita atera zioten hiztegi hari itzultzaileek, irakasleek, idazleek eta, nola ez, ondoren etorritako hiztegiak ere! Orri ertzak garai bateko mezaliburu zaharrak bezain "zikin eta beltz" uzteraino erabili zuen batek baino gehiagok hitzen gordailu aberats hura!



...eta haren lan nagusia: gaztelania-
-euskara hiztegi mardula.

DEITURA

Aurrera baino lehen, deituraren idazkerari buruz hitz bi esan behar dira.

Erdaraz *Múgica* idazten zuen beti hark bere abizena, bistan denez. Paper eta agiri ofizial guztietan horrela idatzi zuen bere abizena.

Euskaraz, ordea, nola idatzi zuen, *Mugika*, *Mujika* ala *Muxika*? Hara, argitaratutako azken *Diccionario vasco-castellano* liburuaren bizkarrean *Mujika* ageri da —ez dakigu berak ala moldiztegiok horrela erabakita, liburu barnean erdarazko *Múgica* ageri baita—, baina beste lan batzuetan *Muxika* idatzi zuen. Horrela, gaztetan egin zuen latinezko olerki batean: “F(rater) Placidus de Muxika S. J.” Eta “Muxika”tar Plazido” idatzi zuen euskarara itzuli zituen bi eleberri laburretan ere.

Hortaz, guk ere *Muxika* idazkera erabiliko dugu, haren erabilerarekin eta Euskaltzaindiaren egungo gomendioekin bat gatozelarik.

HERRI BITAKO SEME

Harrigarria badirudi ere, bi herrik esan dezakete, oker handirik gabe, bere herritar dutela Plazido Muxika: Urnietak eta Lasarte-Oriak (Gipuzkoa).

Oria auzoan jaio zen hura 1906ko apirilaren 16an, izen bereko ibaiaren albo-alboan eta Buruntza mendia oinean dagoen auzo txikian. Eta auzo hori Urnieta herriarena zen orduan. Eskubide osoz esan dezakete, bada, urnietarrek herrikide zutela Plazido Muxika. Aitortu ere horrela aitortu zuten orain urte batzuk, herriko plaza polit bati haren izena ipini ziotenean.


1986an, ordea, Oria auzoa beste

zenbait auzorekin elkartu eta Lasarte-Oria herri berria sortu zuten. Ziren bezalakoak igaro ziren auzo horiek udalerrira, bere izaera guztiarekin, iragana ere barne zela. Eta, alde horretatik, garbi esan daiteke, zuzenari muzin egin gabe, garai bateko oriatarrak ere bere dituela egungo Lasarte-Oria herri berriak. Horrexegatik, hain zuzen, egunotan birmoldatzen ari diren auzo hartako kale bati Plazido Muxikaren izena ipintzea proposatu zuen Lasarte-Oriako Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ere, *Ekin Euskarari* kanpainaren barnean hura gogoratuz egin zuten ekitaldiaren ostean (1994-3-24).

Elizari dagokionez, berriz, ez



Urnietarrek herrikidearen izena ipini zioten plaza polit bati.



Lasarte-Oriako Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ere jaiotetxearen ondoko kale bati Plazido Muxikaren izena ezartzea eskatu du.

dago inolako zalantzarik: Lasarteko parrokian bataiatu zuten Plazido Muxika eta, ulertzekoa denez, gogoan izan zuen hori beti. Jakina da hiztegietan esaldi batzuk ipintzen direla inoiz hitzen ondoan, hauen adiera argitzeko. Hona, bada, nolako adibidea ipini zuen Plazido Muxikak bere hiztegian, *civilmente* eta *eclesiásticamente* hitzen azalpenean: “legez (...) Urnieta’rra naiz ni, eta elizaz Lasarte’arra”.

Beude, bada, bakean herri biak, iraganaren oroitzapena elkarrekin gordez.

HAURTZAROA ETA LEHEN GAZTAROA (1906-1922)



Aita, Antonio, Ordiziakoa zen.

baserriko alaba. Ezkondu zirenean, Orian jarri ziren bizitzen, Brunet enpresaren aurreko etxeetan, Antoniok Brunetarrenean egiten baitzuen lan baratzezain. Elizatxoaren ondoko etxean bizi ziren. Etxeak Baratzalde du izena, jendeak “Etxegorri” izenaz ezagunagoa bazuen ere.

Bost seme-alaba izan zituzten —beste bi hil egin ziren jaioberritan—. Hiru mutil aurrena eta neska-mutil bi, bikiak, gero. Plazido zen, hain zuzen ere,



Ama, Dominika, Astigarragakoa.

biki horietako mutila; arreba ere, Engrazia, lekaime izango zen.

Haurtzaro mugitua izan zuen Plazidok. Jaio, oso ahul jaio omen zen eta lanak izan zituen bizirik irauten. Gero, berriz, hiru urte inguru zituenean, meningitis gaitzak jo zuen. Zerbait zuzpertzenean, Ordiziara bidali zuten, Zabalera,



Jaiotetxeak Baratzalde zuen izena, baina oriatar askok 'Etxegorri' esaten zioten. Gaur egun auzoa berritzen ari dira, etxe zaharrak bota eta berriak eraikiz.

amonaren etxera, han indartu eta guztiz osa zedin. Hiru urte inguru egin zituen han. Lehen oroitzapenak hangoak omen zituen eta, horrexegatik, harritzekoa ez denez, oso maitea zuen Plazidok Ordizia. Gerora ere maiz joan omen zen hara, oporretan-eta.

Hiru urte horiek igarota, gurasoen etxera itzuli zen, Oriara, eta han beste hiru bat urte egin zituen. Hura hamar urteko mutila zelarik, berriz, Altzara joan ziren bizitzera Muxikatarrak. Oriako Etxegorri etxetik Altzako Etxe-urdirin etxera aldatu ziren.



Hiru urte egin zituen Ordiziako Zabale etxean, amonarenean. Hura izan zuen haurtzaroko 'bigarren etxea'.

Altzan, eskolan ibili zen hamahiru urte bete arte. Eskola uzteko garaia iritsi zenean, Seminarioko asmoa zuela adierazi zien Plazidok gurasoei eta hauek Andoaingo Seminariora bidali zuten. Hiru urte egin zituen han —hiru urte berriro ere!— latina-eta ikasten. Orduan, ordea, irakurtzen zizkieten irakurgetaiek bultzatuta-edo, erlijioso sartzeko gogo sortu zitzaion. Horrela, 1922an, hamasei urteko gaztea zela, Azpeitiako Loiolan astebeteko gogo-jardunak egin eta jesuita sartzea erabaki zuten.



Plazidok hamar urte zituelarik Altzara aldatu ziren Muxikatarrak.

JESUITA GAZTE, EUSKALZALETU (1922-1929)

Gogo-jardunak amaitu eta handik hilabetera sartu zen Loiolan. Uztailaren lehen egunetan joan zen, baina bataio-agiriaren zain egon behar izan zuen egun batzuetan eta, hau iritsita, hilaren 24an, Santiago bezperan, egin zen nobizio.

Ondoko urteak erlijioso prestakuntzari eta zegozkion ikasketei bete-betean emana igaro zituen Plazido gazteak: lau urte Loiolan —bi nobizio eta beste bi junior— Humanitateak lantzen; eta gero beste hiru Burgosko Oñan, Filosofia ikasten. Ohikoa zen hori eta horretan ez da ezer berezirik.

Etxe horietan bazen, ordea, guretzat bereziki azpimarragarri den zerbait: euskararen aldeko giroa. Han edoski



Jesuita gazte zelarik euskaltzaletu zen

zuen Plazido Muxikak —eta berdin haren garaitsuan Lagundian sartu ziren Ibiñagabeitia, Zaitegi, Lauaxeta eta beste gazte askok— euskaltzaletasuna. Lehendik ere euskaldunak ziren gehienak, jakina, euskal hiztunak alegia, baina modu naturalean bizi zuten gurasoengandik ikasitako hizkuntza, hura landu gabe eta, beharbada, haren kontzientzia handirik ere izan gabe, Ibiñagabeitia izan ezik. Han esnatu ziren, han gaitu eta prestatu, gero bizitzan zehar ondu zituzten euskal lanak burutzeko.

Oñako teologoek sortu zuten lehen Euskal Akademia, 1920ko udazkenean, eta Orixe izan zuten lehen zuzendaria. Loiolan ere haren antzeko beste bat sortu zuten junior gazteek 1922an. Plazido Muxika eta bere lagunak nobizioak ziren artean eta ez zuten, beharbada, haren berri handirik izan. Junioradora igarotakoan, ordea, berek ere lehen urratsak egin zituzten giro hartan. Ohiko zereginei albotik erantsitako zerbait zen, noski, euskararen aldeko giro hura, euskarazko predikuei begira-edo nolabait onartua eta ez guztiz nobizioen bizimoduan txertatua. Baina giro joria izan zen, inondik ere, urte haietan hasi eta gerra arteraino jesuita-etxe haietan bizi izan zena. Goraki aitortu du hori aita Altunak:

Lagundiko euskal Urre-aroa izenda genezake hura. Han Loiolan bizi ziren orduan gazte haien euskal gogoen piztaile suhartsu, eta batzuk irakasle ere, izan ziren Aita Estefania, Aita Apalategi, Aita Olabide, Aita Zugaza, Aita Goikoetxea Juan Jose, euskal kultur munduan nor gehixeago nor gutixeago lan eginak. (*Euskera*, 1983-1, 298)

Oñara Filosofia ikastera joan zirenean, berriz, euskara alde batera utzi ez baina hura lantzen jarraitu zuten, hango agintarien iritzia gorabehera. Hiztegiaren hitzaurrean berak kontatuta dakigu, esate baterako, Plazido Muxikak hitz-zerrendak bidali zizkiola Azkueri Bilbora, 1926an, honek esku artean omen zuen gaztelania-euskara hiztegiaren kontuan izan zitzan.



Azpeitiko Loiolan sartu zen jesuita. Gerora ere urte asko egingo zituen han: 1922-26, ikasle; 1941-42, greko hiztegiaren laguntzaile; 1948-55, artxiboa antolatzen. Han igaro zituen, halaber, bere bizitzaren azken urteak (1963-1982), hiztegi-lanetan murgildua.

HERRITIK URRUN, AMERIKETAN (1929-1932)



Kolonbian egin zuen hiru urteko 'maisualdia'. Ekuadorren mugatik hurbil dagoen Pasto hirian.

Filosofia-ikasketak amaituta, Euskal Herritik urrunera egin zuen pausua aita Muxika gazteak, Andima Ibiñagabeitia eta beste zenbait lagunekin batera. Kolonbiara joan zen, jesuitek egin ohi zuten hiru urteko "maisualdia" han betetzera. Zergatik, ordea, Kolonbian? Soldadutza gogaikarriari itzuri egiteko hartu zuen erabaki hori, maisualdiko hiru urteak atzerrian eginez gero, soldadutzatik libre geratuko baitzen.

Asmoa eta xedea zirenak zirela ere, hiru urte atsegin eta bete igaro zituen Plazidok Kolonbian, Ekuadorko mugatik hurbil dagoen Pasto hirian, mutilen ikastetxe batean irakasle.

Gerora maiz gogoratuko zituen hiru urte haietako ibilerak.

Beste askoren artean hiru kontu aipa daitezke, urte haietako oroitzapenen oihala osatzen zuten harietatik tiraka.

Lehenbizikoak Santa Kruz apaizaren izena darama. Izan ere, hurbiltasun handia sentitu zuen aita Muxikak gerrillari famatu izandako apaizarekiko. Ez zuen bizirik ezagutu,



Santa Kruz apaiz gerrillaria irakasle eta misiolari aritu zen urte askotan Paston, jesuiten ikastetxean bizi zelarrik. Ikastetxe hartara bidali zuten, urte gutxi geroago, Aita Muxika ere. Honek utziko zituen, beharbada, Aita Muxikak mendi batean aurkitu eta hain eragin handia izan zuten euskal orriak.

1926an hila baitzen hura, baina biak urruti haietan eta ikastetxe berean irakasle aritu izanak hurbiltasun-sentipen berezia eman zion jesuita gazteari.

Jakina da Santa Kruz apaizak borrokak behin betiko utzi zituenean, gogo-jardun luze eta sakonak egin

ondoren, apaiz-bizimodu eta -lanetara itzultzea erabaki zuela eta jesuitekin bizitzen jarri zela. Hamabost urte egin zituen aurrena Jamaikan eta beste hogeita hamabost bat Kolonbiako Paston, jesuiten ikastetxeetan irakasle. Frantses eta ingeles irakasle zen. Jesuitekin bizi bazen ere, 1922 urtea arte ez zioten jesuita izateko baimena eman. Hil baino lau urte lehenago egin zen, bada, jesuita, laurogeita sei urte zituela.

Paston zegoela herri bat ere sortu zuen Santa Kruz apaizak mendi aldean, hiritik kilometro batzuetara, eta San Ignacio izena ipini zion. Larunbatero joaten omen zen hara eta turuta hotsez deitzen omen zien inguruko indioei herrira bil zitezen. Espainian, berriz, erabat ahaztuta zuten "apaiz beldurgarri" hura. Horregatik, artean bizi zela eta apaiz gisa ari zela jakin zuenean, harritu egin omen zen Alfonso XIII.a erregea. Zilarrezko turuta bat bidali zion opari, bere lanean lagungarri izan zezan. Turuta bidean zela, ordea, hil egin zen Santa Kruz eta hura zeraman jesuitak Tenerifan utzi zuen, bestela ere aski beteak baitzeramatzan maletak. Pastoko jesuitak, berriz, ez omen ziren pozik eta turuta eskatu zuten, beren ikastetxerako baitzen hura. Aita Muxikari egokitu zitzaion zorioneko

turuta hori Tenerifen hartu eta Ameriketara eramatea.

Bestalde, berriz, Santa Kruz apaiz zaharrari jesuita sartu zenean eman zioten gurutzearen jabe egin zen aita Muxika Kolonbian eta ez zuen bere denbora guztian galdu. Hura bular gainean zuela eman zuen azken arnasa ere.

Bigarren kontuak ere badu Santa Kruz apaizarekin zerikusia. Atarikoan esan dut Kolonbian hartu zuela aita Muxikak hiztegi handia egiteko asmo sendoa. Erabaki hura eragin zuten *Argia* aldizkariko orriak, hain zuzen ere, Santa Kruz apaizak utziak ziren, itxura denez. Aldizkari horren ale bi hartzen omen zituen hark, bat Donostiatik eta bestea Bilbotik bidaliak. Otarteko bat bilduz eramango zituen beharbada mendira eta hantxe utzi.

Hirugarren kontua ere aita Muxikaren zaletasunen lekuko argia da. Kolonbiako urte haietan itzuli zuen alemanetik euskarara *Nonni und Mani* eleberritxoa, bestelako lanek uzten zizkieten tarte libreak baliatuz. Gaztetan piztutako euskal asmo-gogoak bizirik gordetzen zituela erakusten du horrek. Ez zituela itzaltzen utzi.

ETA EUROPAN (1932-1937)

Kolonbiako hiru urteak beteta Europa aldera jo behar izan zuen aita Muxikak, beste jesuita askok bezala, Teologia-ikasketak egitera. Espainiatik jaurtikiak izan ziren jesuitak eta, beraz, etxekoei ikustaldi labur bat egin ondoren, Belgika aldera bidali zuten.

Belgikako Marneffe-n (1932-34) eta Herbehereetako Valkenburg-en (1934-36) egin zituen Teologiako lau urteak. Gero, apaiztuta, urtebete pasatu zuen Belgikan ostera ere, Tronchiennes-en, "Hirugarren Probantza" egiten, urte batzuk geroago Lagundiko Generala izango zen aita Janssens-en gidaritzapean.

Urte haiek oroitzean ezagututako jesuita-lagunak izaten zituen batez ere gogoan. Ospe handiko irakasleak izan zituen eta baita ondoko



1936an apaiztu zen Herbehereetako Valkenburg-en. Argazkian, ezkerretik hasita, lagun bat eta Antonio, Plazido, Joxe eta Balentin anaiak.

urteetan oso ezagunak izango ziren ikaskideak ere. Hantxe izan zuen ikaskide, esate baterako, aita Arrupe bilbotarra, gerora Generala izango zena hau ere. Han ezagutu zuen anaia Svenson islandarra, *Noni eta Mani* eleberriaren protagonista.

LAN ISILEAN BETETAKO BIZITZA EMANKORRA (1937-1982)



Engrazia, haren arreba bikia, lekaimea izan zen.

11

1937an, hamabost urte luzetako ikaskuntzak amaituta, osterara jesuiten eskuetara etorria zen Xabierko etxera bidali zuten agintariek aita Muxika. Hantxe amaitu ziren Amerikan eta Europan barrena eginiko ibilerak eta "txango" interesgarriak. Handik aurrera ohikotasun arruntean sartu zen haren bizitza. Lan isil, emankor eta ugariak beteko zuen handik aurrerako denbora guztia.

Hasteko, esan bezala, Xabierra bidali zuten, mutikoen irakasle. Latina eta grekoa zituen irakasgai. Han zegoela, latina eskoletan sartu beharra zela-eta ikasleentzako hiztegi bat presta zezala eskatu zioten. Hilabete gutxitan egina zuen. Gero,

berriz
—1941a zen —,
Loiolara bidali
zuten, han
egiten ari ziren
grekoko
hiztegian ere
lagun zezan.
Handik Deustura
joan zen, gerra-
-garaian
desegindako
Mensajero-ko
biblioteka
ordenatzera eta fitxategiak
antolatzen. Hori egindakoan, Oñara
bidali zuten, Francisco Suarez filosofo
eta teologoaren lanen inguruko
proiektu batean parte hartzen.
Proiektu zabala zen, helburu handi-
-aberatsak zituenena..., baina porrot egin
zuen. Ostera Loiolara ekarri zuten
1948an, irakasle eta artxiboaren
antolatzaile. Zazpi urte egin zituen
horretan, 1955an Zaragozako
Veruelara bidali baitzuten, biblioteka
antolatzen han ere. Handik Loiolara
ekarri zuten ostera ere 1963an, eta
hemen eman zituen bere bizitzaren
azken hemeretzi urteak.

Eta hiztegia zer? Zer egin zen
Kolonbian harturiko asmo handi hura?
Gaztaroko amets politik itzaltzearekin
batera urtu al zen hura ere oroitzen



Zaragozako Veruelan (1955-1963) eman
zion bultzada handia hiztegiari.

galduen ezerezean? Ez, ez zen urtu
batere; ez zen galdu. Gogoan zuen
beti aita Muxikak hiztegia eta harekin
hasteko zegoen beti. Lehenbiziko urte
haitan, ordea, bestelako lanek
mendean hartuta ibili zen eta, gainera,
Azkuek bere *Diccionario vasco-
-español-francés* ezaguna egin
ondoan gaztelania-euskara hiztegia
prestatzen ari ote zen susmoa zuenez,
lanean abiatzeko uzkur bezala
zebil.

Dena dela, 1944an, Oñan zela,
fitxak idazten hasi zen, poliki-poliki,
atsedenaldiei denbora kenduz. Eta
1948an Loiolara ekarri zutenean indar
berriz ekin zion fitxak prestatzeari,
irakasle eta artxibozain lanek libre
uzten zioten denboran hemen ere, eta
etenaldiak ugariak zirelarik —behin
urtebete osoan egon omen zen
hiztegiko lana ukitu ere egin gabe—.
Jakin zuen, ordea, Azkuek ez zuela



Gizon langilea zen. Beretzat hartu zuen hiztegia prestatzearen
zama guztia.

gauzatu gaztelania-euskara hiztegia egiteko asmoa eta horrek bultzatu zuen aurrera egitera.

Veruelara bidali zutenean ere, 1955ean, berdin segitu zuen. Han ere urtebete-edo pasatu zuen hiztegirako ezer egin gabe, eskolak eta biblioteka arrunt galdua berriro antolatzeak eguneko ordu guztiak betetzen baitzizkioten. Egoera horrek ez zuen, hala ere, luze iraun; 1958an beste zereginetatik libre utzi zuten behingoz agintariak —gazteei eman beharreko eskoletatik izan ezik, noski—, hiztegi-lanei modu beteagoan ekin ziezaien. Eta horrela egin zuen.

Gero, 1963an, Loiolara aldatu zutenean —behin betiko aldatu, oraingoan—, berdin jarraitu zuen, hiztegiaren prestakuntzan... Eta azkenean, 1965ean, argitara eman zuen hainbeste urtetan amestutako lan erraldoia. Urte berezia izan zen hura aita Muxikarentzat. Pozik zen gizona, jakina. Hiztegia ondo hasi zen saltzen, gainera, Hegoaldeko bazter guztietara zabalduz.

Handik gutxira, 1968an, batasunerako bilera ospetsua egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazun eta han ezagunak diren erabakiak hartu.

Denak ez zetozen bat Hegoaldeko idazleen ohiturekin eta aita Muxikak segitutumako idazpidearekin. Batzuk ez zitzaizkion egokiak iruditu eta garbi adierazi zuen hori.

H-arena batez ere iruditu zitzaion desegoki, askoren ohituraren aurka joateaz gain, alferrekoa eta nahasgarria ere gerta zitekeela uste baitzuen. Hori zen haren iritzia eta, esan bezala, garbi aitortu zuen. Ez zen, ordea, Euskaltzaindiaren kontrako kanpainetan nahasi, horretarako dei bat edo beste izan bazuen ere. Laneko gizona zen, ez borrokakoa.

Lanean jarraitu zuen, bada, lasai eta kementsu, ondoko urteetan ere, hiztegi lodiaren segidako lan batzuk bururatuz: edizio berri laburtua prestatu, hiztegia irauli eta euskara-gaztelania bertsioa egin... Horrenbestez, gorabeherak gorabehera, gaztetan amesturiko lan erraldoia gauzatua ikusteak ematen zion poz-atsegina gozatuz igaro zituen bizitzaren azken urteak.

1982ko abuztuaren 27an hil zen, isilik eta bakean, bihotzaren zolan lan eginaren poza sentituz eta bular gainean Santa Kruz apaizak erabilitako gurutzea zuela.

LANGILEA ETA APALA

Nolako gizona izan zen Plazido Muxika? Nolako ezaugarriak zituen haren nortasunak? Izan zuen bizitzari begiratzea aski da hura nolakoa zen jakiteko. Laburbiltzen hasita, honako bi adjektibo hauek erabil daitezke:



langilea eta apala.

Langilea zen, bai, langile porrokatua. Egiteko bat esku artean hartzen zuenean, ez zuen hura bururatu

arteko bakerik izaten. Froga ugari utzi zituen.


Latin-hiztegia egiteko agindu ziotenean, esate baterako, irailaren 29an hasi eta hurrengo Epifania-jaiarako amaitua zuen lana: hiru hilabete eta hamar egunetan egina zuen. Horretarako,



ordea, gelan sartu eta leihoak itxita lan egiten omen zuen egunez ere, argia piztuta, kanpoko ezerk arreta ken ez ziezaion.

Oñan, berriz, euskal hiztegiaren fitxak idazteari ekin zionean, lan orduz kanpo egin zuen hori; bestek atsedenean zirenean, asteburuetan, bazkalondoko pausa-garaian, afalorduan...

Hiztegi-lanak aurrera zihoazenean, Loiolan, izena kendu zuen gelako atetik, kanpotik etorritako jesuita arrotzek gela hartan nor bizi zen jakin ez zezaten eta denbora-pasako berriketa asmotan sar ez zitezen. Izenaren ordeaz *Ocupado-Lanpetua* zioen kartoi bat zeukan jarrita. Hamaika edo hamabi bat ordu behar izaten zituen egunero hiztegi-lanerako eta ez zegoen haiek alferrik galtzeko prest. Izan ere, beretzat hartu zuen beti hiztegia prestatzearen zama guztia, laguntzarik edo horrelakorik eskatu gabe. Berak egin zituen fitxak, berak orriak makinaz idatzi, berak zabalkunde-lanak, harpidetza-kontuak... dena. Zerbait laguntza eskaini zioten inoiz agintariek, baina berak ez zuen nahi izaten. Urtetan bakarrik lan egiten




ohitua, ez zekien nonbait lana banatzen —edota ez zen, beharbada, besteengan gehiegi fidatzen...—.

Eta apala. Herriaren onerako lan egin zuen, ez inoren txaloak jasotzeko. Horrelako lan bat egiteko "hace falta estar loco" esan omen zion norbaitek eta berak erantzun "De acuerdo..., es preciso estar loco de amor al euskera" (*Diccionario vasco-castellano I*, 11.).

Euskaltzaletasunak eragin zuen, bada, haren lanaren handia, ez ohore eta miresmen gurariak.

Hiztegia argitaratu ondoan omenaldi moduko bat egin nahi izan omen zioten Lasarten, lan erraldoi hark hainbeste merezi zuelakoan. Ezetz erantzun zien aita Muxikak, ez zela batere horrelako omenen lagun. Hala ere zerbait egin zuten lasartearrek, D. Manuel Lekuona hizlari zela; aita Muxika, ordea, ez zen agertu. Ez zen, ez, ohore gose.

Dena dela, zenbait erakundek aitortu zuten haren lanaren handia: euskaltzain urgazle izan zen, Euskerazaintzako kide eta baita The Hispanic Society of Amerika-ko kide ere.



LANAK

Behin eta berriro esan dugun bezala, 1965eko *Diccionario castellano-vasco* hiztegi mardula izan zen Plazido Muxikaren lanik handiena. Huraxe izan zen haren emaitza nagusia. Ez bakarra, ordea, beste lan batzuk ere egin eta argitaratu baitzituen.

1940an *Diccionario latino-español y español-latino* izenekoa argitaratu zuen. Ikasleentzat eginiko hiztegia zen eta arrakasta handia izan zuen, 50.000 ale saldu baitziren zazpi argitaralditan.

1941ean, berriz, hurrengo urtean argitaratuko zen *Diccionario griego-español*-erako lanetan parte hartu zuen.

1951n *Noni eta Mani* eleberri laburra eman zuen argitara, alemanetik itzulia. Islandiar mutiko biren gertaldiak

15

Milaka eta milaka fitxa egin zituen. Ordenadorearen garaia iristeko izaki, zapata-kaxetan gordetzen zituen denak.

16

kontatzen dira berrogeita hamar bat hizkuntzataraz itzulia izan den eleberri honetan. Egileak berak eskatu omen zion aita Muxikari euskarazko itzulpena argitara eman zezan. Edizio bat baino gehiago izan zuen eta guztira 6.000 ale saldu ziren.

1965ean, esan bezala, *Diccionario castellano-vasco* handia argitaratu zuen. Hiru argitaraldi izan zituen denbora gutxian —azkenak zertxobait laburtuak— eta 17.000 ale saldu. Hiztegia ahalik eta erabilgarriena izatea nahi zuen eta, horretarako ahalik eta merkeena egitea komeni zenez, alde zuzenetik harpideak biltzen saiatu zen; 4.000 harpide bazituen hiztegia argitara zeneko.

1968an *Mendiko argia* eleberria argitaratu zuen, alemanetik itzulia hau ere.



Lanik handienak eginak, maizago agertzen zen azken urteetan senideetara. Herreran, Antonio eta Balentin anaiekin.

1968 urtean berean *El verbo auxiliar guipuzcoano* argitaratu zuen, bi taula-orri bilgarrietan.

1969an *Afijos vascos* izeneko liburuxka argitaratu zuen, hiztegi gehigarri gisa ematen zuen atzizkien zerrenda emendatuta emanaz.

Azkenik, 1981an bere hiztegi handiko fitxak irauliz *Diccionario vasco-castellano* izeneko argitaratu zuen liburuki bitan.

Hortik landa, artikuluak ere idatzi zituen *Jesusen Biotzaren Deya*, *Argia*, *RIEV*, *Yakintza* eta beste zenbait aldizkaritan. “Txurdiñ” izenordea erabili zuen maiz —Altzan bizi izan zeneko etxearen izena gogoratuz-edo— eta baita “Intzinda” eta “Minoski” ere bai beste inoiz.



Arreba Engrazia eta hiru koinatak.

kultura orokorrean ohikoak direnak, bai, horiek guztiak biltzen saiatu zen. Eta lortu ere, lortu zuen neurri handi batean.

Erabilitako iturriek ere lagundu zioten horretan. Honako hauek erabili zituen: ordu arteko hiztegi guztiak, (Azkuerena, Lhanderena eta beste), Euskaltzaindiak utzitako Azkueren hitz zerrendak eta beste zerrenda ugari, itzulpen nagusi guztiak —*Kempis*-en bost itzulpen barne—, Orixeren itzulpenak, aldizkarietako artikulak eta beste lan asko. Honela dio Mitxelenak:

(...) la obra del padre Múgica merece en conjunto un elogio incondicional por la riqueza casi exhaustiva de su documentación. (Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, MUGICA BERRONDO, Plácido sarreran)

Aberastasuna *nahasbide* ere izan daitekeela esan da inoiz. Eta horrela da. Hiztegian ematen den informazioa hain handia izanik, behar bezala erabiltzen jakin behar da. Hiztegia argitaratu berritan, egunkariak euskararen aberastasun hori zuten aipagaietako bat. *Mariposa* hitzerako, esate baterako, ehun euskal hitz eta aldaera baino gehiago ematen omen ditu hiztegiak. Aberastasuna da, noski. Kontuz ibili behar da, ordea,

ugaritasun horrekin, aberastasuna dirudiena aberaskeria ere bilaka baitaiteke, informazio hori guztia behar bezala erabiltzen jakiten ez bada.

Behar bezala erabiltzea baita kontua. Adiera kontuak daude, hasteko. *La Pasión de Jesús* esaldia *Jesusen Nekaldia* ez baina *Jesusen Grina* itzuli zuenak, esate baterako —adibidea ez omen da asmatua—, handiegi zuen horrelako hiztegi bat. Eta hil-ohar batean hildakoaren lanbidea ipintzeko *harakin* jarri beharrean *aragi-jale* jarri zuenak ere ez bide zekien erdarazko *carnicero* hitzak adiera bat baino gehiago duela eta bakoitzari bere ordaina dagokiola.

Erregistro- eta euskalki-aldeak daude gero. Hor ere aukerak ugariak izan daitezke. Aukera handian zuzen hautatzen dakienarentzat, ordea, ez dago arriskurik: nahasbide ez baina aberasbide izango du hiztegiaren ugaritasuna, hitz edo esamolde zehatz baten bila dabilelarik gutxien uste duen bidea irekiko baitio sarri askotan han aurkituko duen informazioak.

Aipagarri da, azkenik, hitzen aukeran Plazido Muxikak erakutsi zuen *oreka*. Jakina den bezala, erdaratik euskararako hiztegiek ahalegin berezia eskatzen dute erdal

hitz bakoitzari bere euskal ordaina bilatzeko. Zer gertatzen da, izan ere, erdal hitz jakin baten ordain zehatza aurkitzen ez denean? Bide bi daude horrelakoetan eskueran: edo hitz berria sortu edo kanpoko hitza hartu eta egokitu. Eta bide biek arriskua dakarte: hitz berriak egoki edo desegoki etengabe asmatzen aritzea, batetik, edo, beste aldeko muturrean, hitz guztiak kanpotik hartzea, inolako galbaherik erabili gabe. Edo neurri gabeko garbizalekeria edo gehiegizko mordoilokeria, alegia. Plazido Muxikak oreka bilatu zuen horretan, bi aldeetako gehiegikeriak saihestuz.

Garbizalea zen, hori bai, eta, ahal zela, euskal jatorriko hitza hobesten zuen: *hexoedro* esateko *sei-aldeko* hobetsi zuen, konparazio batera, euskaldunek hobeto ulertuko dutelakoan. Baina, bestalde, garbizale izanik ere, ez zitzaion iruditzen beharrezko ez bidezko *atlas*, *fisika*, *mistika*, *organu* eta horrelakoak “euskaratzen” aritzea.

Hona, berriro, Mitxelenaren hitzak hiztegia gorai patuz:

(...) por el buen sentido con que se han sabido salvar incontables dificultades y por la misma moderación de que da prueba en todo momento. (Ibid.)

ETA ORAIN?

Eta orain, zer?, galde dezake beharbada baten batek. Zertan geratu da gaur egun hiztegi handi haren emaitza? Izan ere, ordutik hona asko aurreratu dugu euskal hiztegi gintzan.

Horrela da, bai, gaur egun hiztegi asko ditugu eta mota askotakoak. Gero eta lexiko-tresna hobeak ditugu euskara lanbide dugunok. Plazido Muxikarena ere hor dago, ordea, besteen artean, bere aberastasuna eta ezaugarri jakinak dituela.

Eta hor egongo da beti, euskaltzaleen gogoan eta eskuetan, leku propioa irabazia baitu euskal lexikografiaren historian.



Lasarte-Orian 1994an Ekin Euskarari kanpainaren barruan omenaldia eskaini zioten Plazido Muxikari, Argazkian, herriko alkate-andrea eta zinegotzi bat Nere Muxikari, Plazidoren iloba zaharrenari, oroigarri bat eskaintzen.